

# Eutanasia arautzen duen 3/21 Legeari buruzko oinarritzko prestakuntza (LORE)

## HELBURUAK

“Eutanasia arautzen duen 3/21 Legeari buruzko oinarritzko prestakuntza (LORE)” on-line ikastaro hau egokia iruditu zaigu legearen berritasunagatik eta bizitzaren amaierako asistentzian horrek ireki den etapa berriagatik. Testuinguru horretan, ezagutu, hausnartu eta eztabaidatu egin behar dugu, baita hemengo eta beste herrialde batzuen esperientziatik ikasi ere.

Ikastaroa interesa duen edonorentzat dago irekita, baina bereziki baliagarria izango zaizue beste pertsona batzuei prestakuntza ematea asmoa baduzue, edo prozesu eutanasikoetan parte hartu behar baduzue. Bi egoera horietan gaian sakondu behar izaten da, intelektualki eta emozionalki sendotu eta lasaitasunez, zuhertasunez eta eraginkortasunez ekiteko. Ikastaro hau, gainera, koherentea da Duintasunez Hiltzeko Eskubidearen Elkartek (DMD-DHE) eskubide zibilen eta askatasunaren, berdintasunaren eta anai-ahizpatasunaren aldeko gizarte-mugimendu gisa dituen helburuekin.

## EDUKIAK

Oinarriari, legeriari, datuei eta baliabideei buruzko moduluetan antolatu dugu ikastaroa. Horretarako, testu batzuk aukeratu ditugu, ezinbesteko kontzeptu eta gogoetak dituztenak, eta beste batzuk gehiago sakontzen dutenak zenbait alderditan. Lehenengoak lehenetsunezko bibliografian daude jasota, eta gainerakoak laguntzazkoan.

Testuak lasai eta kritikoki irakurtzeaz gain, modulu bakoitzean irekitako foroan aktiboki parte hartzea eta amaieran ataza labur bat egitea izango dira ikastaroko jarduerak nagusiak. Ezinezkoa da egunero sortzen den informazio erabilgarri eta zorrotz guztia eguneratuta edukitzea, baina moduluetan egituratuta eta foroetan egingo dituzuen ekarpenekin, oso baliagarriak izango diren material berriak ere gehituko ditugu.

## IKASLEAK ETA DEDIKAZIOA

DMD-DHEko bazkide guztiek har dezakete parte ikastaroan, eta ez da alde aurreko titulaziorik behar. Ikastaroan sartzekotan, hilean gutxienez 15 orduko irakurketa-erritmoa eta dedikazioa izan beharko dituzue, eta onlineko foroetan etengabe parte hartzen saiatu beharko duzue. 2024-25 ikasturterako gehienez 50 matrikula egongo dira.

Ikastaroaren jarraipena Moodle software libreko plataformaren bidez egingo dugu. Plataforma hori online ikastaroetan erabili ohi da. Ikastaroa egiteko ez da inolako ordutegirik bete behar, baina modulu bakoitzaren azken astean on line bilera batean parte hartu ahal izango da, zalantzak eta hausnarketak partekatu ahal izateko.

# Eutanasia arautzen duen 3/21 Legeari buruzko oinarrizko prestakuntza (LORE)

## ANTOLAKETA ETA EBALUAZIOA

Ikastaroaren hasiera-data (2024ko irailaren 16a) eta amaiera-data (abenduaren amaiera) dira. Izena eman eta matrikula egin ondoren (2024ko uda) eta ikastaroa hasi ondoren, hainbat modulu jorratuko dira.

Egutegi-proposamen bat egingo dizuegu, eta erreferentzia-datak dituzten mugari batzuk proposatuko dizkizuegu (testak edo zereginak), baina modu planifikatuan aurrera egiteko erreferentziak baino ez dira izango. Zalantzak eta iritziak azaltzeko, irakurketak iradokitzeko, testuak eta estekak bidaltzeko, foro bat izango dugu modulu bakoitzean, motibazio, harreman eta elkar-babeserako baliagarria izango delakoan.

Irakasleek zuen mezuak berrikusiko dituzte, eta etengabe parte hartuko dute, baina ikasleen zeregin oso garrantzitsua izango da foroetan agertzen diren gaiei buruz etengabe eztabaidatzea.

Ikastaroaren amaieran, ziurtagiri bat emango zaie modulu bakoitzean eskatutako zereginak bete dituzten pertsoneri.

## MODULUAK

1. MODULUA: OINARRIAK
2. MODULUA: EZTABAIDAK ETA KASUAK
3. MODULUA: LEGERIA
4. MODULUA: TXOSTENAK, ESKULIBURUAK ETA MATERIAL DIDAKTIKOAK
5. MODULUA: ZINEMA ETA LITERATURA